

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio kanala bezeroekin komunikatzeko balio duen kanala da. Horretarako hainbat aukeren artean, egokiena aukeratu dugu, gure bezeroen erosotasuna lortu ahal izateko. Gure proiektua telebista kate bat dela kontuan hartuta eta emakume kirolarien ezagutza handitzea gure helburua delarik, webgune bat sortuko dugu eta bertan guk egindako kamixetak, jertseak... salduko ditugu.

Horretarako, pertzepzioaren bidez ezagutaraziko dugu gure enpresa.

Adibidez, gure katea emititzen denean gure webgunean, gure produktuak egongo dira, ikusleen artean erabat erakartzeko.

Esan dugun bezala, webgunetik erosteko aukera izango dute bezeroek, beraz, **kanal propioa** sortuko dugu, online motako kanala.

Gure webgunean, gustuko duten produktuen, prezioak ★★★★★ eta neurriak ikusteko aukera dute, eta dudaren bat izan ezkerro, webgunearen beheko zatian gure kontaktua izango dute (bai telefonoa bai e-maila).

Bezeroen balorazioak garrantzi oso handia du, bezeroei produktua gustatzen ez bazaie produkzioan aldaketak egingo dira. Bestalde, produktua asko gustatzen bazaie, produktu kopurua ekoiztuko da. Gure salmenten etorkizuna erosleen esku dago.

Produktuak arrakasta handia lortzen badu gure kanala bai emakumeen ezagutza asko handituko litzateke, eta hori da gure helburu nagusia.

Bezeroek erosketak egin ondoren, produktua eskuratzeko hainbat aukera izango dute. Horietako bat, gure ofizinean bertan jasotzea da. E-mail bidez jarriko gara kontaktuan eta bere



eskaera gure ofizinetan iristean, abisatuko diegu produktuaren bila etor daitezen.

Beste bide bat produktua etxera iristea izango da; horretarako bidalketa-gastuak ordaindu beharko ditu.

Azken aukera, bere inguruan duen Puntu Packa (bilaketa puntua, bere produktua bertan jaso ahal izango du) aukeratzea da.

Bezeroak produktua eskuratzean, nahi izanez gero gure produktua baloratu beharko du, hau da, gure webgunean balorazio saila egongo da eta bertan edozeinek gure produktuak baloratzeko aukera izango du.

Horrela, produktua gustokoa izan duten edo ez ikusiko dugu.